

DIRU SARRERAK

Gure produktuen prezioak honakoak dira:

Produktua osorik (pack): 99,95€

Azpimarragailu mekanismoa: 55,90€

Inprimagailu mekanismoa: 50,95€

Tinta: 17,50€

Karkasa: 10,99€

Gure produktuaren kostua 43,10€koa da. Konpetentziaren kostuarekin konparatuz, azpimarragailu elektronikoa, 115€tan saltzen dutela merkatuan ikusi dugu. Gure produktuari dagokionez, 43,10€ da kostua baina guk hori bi mekanismorekin salduko dugu 99,95€tan. Askorentzat, izugarrizko beherapena da, konpetentziek, mekanismo batekin 115€tan saltzen baitute. Baina honela, jendeak errazago erosiko digu produktua, merkeagoa delako bi mekanismorekin.

Produktu bakoitza bakarka erosteko aukera emango dugu. Baina, gure helburua dena pack batean saltzea denez, bakarka saltzerakoan prezioak gora egingo dute. Bakarka erosiz, azpimarragailuaren mekanismoak 55,90€ balio du, inprimagailuaren mekanismoak 50,95€, tintak 17,50€ eta karkasak 10,99€.

Bezeroei ordainketa eskaera egiterako garaian egingo diegu, honela ziurtasun osoa daukagu haiek guri ordainduko digutela. Hau, egiteko Paypal zerbitzua erabiliko dugu.